

Iker eta Ane dira oraindik izenik ohikoenak azken urteetan

Gurasoek izen euskaldunak eta arruntak aukeratzen dituzte

1996. urtetik Ane izena dago lehenengo postuan gurasoek neskentzat aukeratzen dituzten izenen artean, 2002 eta 2004 urteen artean Euskal Autonomia Erkidegoan izan diren jaiotzen inguruan Eustatek emandako informazioaren arabera. Bigarren eta hirugarren postuan Irati eta Leire izenak daude. Ondoren, eta aldaketa txikiekin bada ere, Nerea, Naroa, María edo Paula izenak daude.

Mutilen izenei dagokienez, gurasoek Iker aukeratzen duten gehienbat eta gero Jon eta Unai. Horien atzetik, Asier, Mikel eta Ander izan dira izen erabilienak.

Erregistro Zibilak gehienez bi izen bakun edo izen konposatu bat onartzen dituen arren, gurasoek bakun bakarra aukeratzen dute.

Ehun izen ohikoenen zerrendan, Jon Ander konbinazioa besterik ez da agertzen mutilentzat; neskentzat, aldiz, ez dira agertu ere egiten beste garai batean hain ohikoak izan ziren Maria izenarekin osatutako izen konposatuak.

Izen beraren grafia ezberdinak

Izen euskaldunak dira nagusi, eta batzuk idazkera ezberdinekin erregistratzen dira, esate baterako: Ane-Anne, Itxaso-Itsaso, Leire-Leyre, Jon-Ion, Aritz-Haritz. Ion izan ezik, izen bera bi eratarazteko forma horiek guztiak 100 ohikoenen barruan daude.

Maria eta Mirenen kasuan izan ezik, izen beraren forma euskalduna gailendu da gaztelaniakoaren aldean; horrela gertatzen da Ane eta Ana, Xabier eta Javier, Jon eta Juan, Mikel eta Miguel izenekin.

2004. urteko jaiotzen estatistikan, 1.367 neska izen jaso dira eta 1.174 mutil izen. Horietatik, 900 neska izen eta 820 mutil izen behin bakarrik agertzen dira eta horien artean izen txinatarak, afrikarrak, arabiarak, italiarrak, anglosaxoniarrak eta abar daude.

1. taula: 25 izen ohikoenak azken hiru urteotan

	Emakumezkoen izenak			Gizonezkoen izenak		
	2002	2003	2004	2002	2003	2004
1	Ane	Ane	Ane	Iker	Iker	Iker
2	Leire	Irati	Irati	Jon	Unai	Jon
3	Irati	Leire	Leire	Unai	Jon	Unai
4	Nerea	Izaro	Naroa	Mikel	Mikel	Asier
5	Maria/María	Nerea	Paula	Ander	Ander	Ander
6	Paula	Naroa	Nerea	Asier	Asier	Mikel
7	Maider	Maria/María	Uxue	Aitor	Aitor	Eneko
8	Maialen	June	Izaro	Eneko	Eneko	Aimar
9	June	Paula	June	Xabier	Julen	Aitor
10	Uxue	Nahia	Lucía	Julen	Aimar	Oier
11	Ainhoa	Lucía	Nahia	Oier	Markel	Markel
12	Lucía	Ainhoa	Maria/María	Markel	Oier	Ibai
13	Naroa	Maialen	Naia	Iñigo	Xabier	Julen
14	Andrea	Uxue	Maialen	Gorka	Ibai	Xabier
15	Haizea	Andrea	Maider	Ibai	Iñigo	Unax
16	Nahia	Sara	Haizea	Pablo	Unax	Iñigo
17	Sara	Naia	Ainhoa	Adrian/Adrián	Gorka	Gorka
18	Laura	Maider	Eider	Daniel	Pablo	Beñat
19	Naia	Haizea	Garazi	Alvaro	Beñat	Aritz
20	Izaro	Eider	Nora	Aritz	Adrian/Adrián	Pablo
21	Eider	Maddi	Sara	Aimar	Aritz	Gaizka
22	Alba	Nora	Andrea	Josu	Gaizka	Adrian/Adrián
23	Oihane	Garazi	Laura	Gaizka	Ekaitz	Ekaitz
24	Garazi	Amaia	Maddi	Imanol	Andoni	David
25	Olatz	Ainara	Ainara	Andoni	Daniel	Alex

Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistika

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es